


LAN MERKATUAREN TXOSTENA

2024ko iraila

Langabeziaren hileko bilakaera, generoaren arabera



Irailan, lau hilabetez jarraian langabeziak gora egin ondoren, berriro murriztu da Lanbiden erregistratutako langabeen kopurua. Guztira, **6.620 langabe zenbatu dira (2.878 gizon eta 3.742 emakume).**

- Langabezia **% -3,8 egin du behera abuztuaren aldean.**
- Langabezia **% 1,5 igo da aurreko urteko irailaren aldean.**

Irailan, bai gizon langabeen kopurua bai emakume langabeena jaitsi egin dira, baina emakumeen kasuan, jaitsiera hori esanguratsuagoa izan da (-%4,5 emakumeen kasuan eta -%2,9 gizonen kasuan).

Martxotik hona hilabetero gertatu den bezala (maiatzean izan ezik), irailan ere, aurreko urteko irailan baino langabe gehiago erregistratu dira Donostian.

2023ko irailarekin alderatuta, langabeen kopurua % 1,5 igo da. Gizonen eta emakumeen artean langabeziak gora egin badu ere, aurreko hilabeteetan ez bezala, hazkundera handiagoa izan da emakumeen artean (+%1,9 emakumeen artean eta +%1,1 gizonen artean).

Langabezia tasa EUSTATen arabera (2024 3. hiruhilekoa)

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea kontuan hartu beharrean (7,4 ekainean), EUSTATEk hiru hilean behin argitaratutako langabezia-tasa hartzen badugu erreferentziatzat (Biztanleria aktiboaren jardueraren arabera estatistika), berriz ere ikusten dugu Gipuzkoa eta Donostia direla, 2024ko hirugarren hiruhilekoan, langabezia-tasarik txikiena izan duten lurralde historikoak eta hiriburuak.

LANGABEZIA TASA (EUSTAT): 2024ko hiru hileko datuak.

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	5,4	5,3	5,3
Donostia	7,4	4,3	5,8
Bizkaia	7,1	8,9	8,0
Bilbo	7,7	9,7	8,7
Araba	8,5	7,9	8,2
Gasteiz	9,6	8,1	8,9
EAE	6,8	7,6	7,1

Eustatek, Lanbide ez bezala (Lanbide-ren bulegoetan izena emanda dauden eta enplegu-bilaketa aktiboa egiten duten pertsonak hartzen ditu kontuan), langabetzat hartzen ditu lana aktiboki bilatzen ari diren 16 eta 74 urte bitarteko pertsonak, hau da, azken 4 asteetan lana bilatzeko kudeaketak egin dituztenak (Lanbideren bidez edo beste edonola). Galdeketa baten bitartez egiten da neurtzea.

	Donostia	Gipuzkoa	EAE
Langabezia indizea	7,4	8,0	9,8
Gizonen langabezia indizea	6,7	6,6	8,2
Emakumeen langabezia indizea	8,1	9,3	11,4
Genero arrakala	1,36	2,67	3,21

Lanbiden erregistratutako langabezia-indizea 7,7koa da, 6,9 gizonen artean 8,4 emakumeen. Ondorioz, 1,5 puntu portzentualeko genero-arrakala erregistratu du Donostiak..

	Langabezia indizea	EAErekiko alde
Gipuzkoa	8,0	-1,9
Donostia	7,4	-2,4
Bizkaia	10,8	0,9
Bilbo	12,5	2,7
Araba	10,6	0,8
Gasteiz	10,9	1,1

Lurraldeen arteko konparaketan, Lanbideko datuen arabera, Gipuzkoa eta Donostia dira EAEn langabezia-indize txikiena duten lurralde historiko eta hiriburuak.

	Langabezia totala	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Hiletik hilerako aldaketa	Urtetik urterako aldaketa
Langabezia totala	6.620	%100		-%3,8	%1,5
Gizonezkoak	2.878	%43		-%2,9	%1,1
Emakumezkoak	3.742	%57		-%4,5	%1,9
Gipuzkoa	28465			-%4,7	%2,0
EAE	107.996			-%3,0	%1,2

Donostian bezala, irailan ere langabeen kopuruak behera egin du Gipuzkoan eta EAEn (-%4,7 eta -%3,0, hurrenez hurren).

Era berean, nabarmentzekoa da Donostiako langabeen kopuruaren urte arteko hazkundera (+%1,5) EAEkoa (+%1,2) baino handiagoa izan dela, baina Gipuzkoakoa (+%2,0) baino txikiaa.



JARDUERA-TASA (EUSTAT, 2024ko hirugarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	61,5	53,7	57,4
Donostia	62,2	54,5	58,1
Bizkaia	61,0	50,8	55,7
Bilbo	63,5	50,7	56,7
Araba	62,9	52,3	57,4
Gasteiz	62,4	51,1	56,5
EAE	61,4	52,0	56,5

OKUPAZIO-TASA (EUSTAT, 2024ko hirugarren hiruhilekoa).

	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Gipuzkoa	58,2	50,8	54,4
Donostia	57,6	52,1	54,7
Bizkaia	56,7	46,3	51,2
Bilbo	58,6	45,8	51,8
Araba	57,5	48,1	52,7
Gasteiz	56,4	46,9	51,5
EAE	57,3	48,0	52,5

Langabeziaren banaketa, adinaren eta generoaren arabera



Donostian, irailean:

- 55 urtetik gorako 2.336 langabe erregistratu dira Lanbiden (+13 abuztuaren alderan).
- 45 eta 54 urte bitarteko 1.528 langabe erregistratu dira Lanbiden (-78 abuztuaren alderan).
- 35-44 urte bitarteko 1.150 langabe erregistratu dira Lanbiden (-123 abuztuaren alderan).
- 25 eta 34 urte bitarteko 1.105 langabetu erregistratu dira Lanbiden (-122 abuztuaren alderan).
- 25 urtetik beherako 501 langabe erregistratu dira Lanbiden (+50 abuztuaren alderan).

Langabeen kopuruak pixka bat gora egin du 25 eta 55 urte bitarteko adin-tarte guztietan.

Egia bada ere 55 urtetik gorakoak direla langabezian pisu handiena duten kolektiboak, horiek ere garrantzi handiagoa dute biztanleria-mailan.

	Gizonak	Emakumeak	Arrakala
25 urtetik beherakoak	%56,1	%43,9	-12,2
25 eta 34 urte bitartekoak	%45,2	%54,8	9,5
35 eta 44 urte bitartekoak	%38,3	%61,7	23,5
45 eta 54 urte bitartekoak	%43,3	%56,7	13,5
55 urtetik gorakoak	%42,6	%57,4	14,7

Emakume langabeen kopurua gizonena baino handiagoa da adin-tarte guztietan, 25 urtetik beherakoetan izan ezik.

EMAKUMEEN ENPLEGUAREN KRONIFIKAZIOA:

Genero-berdintasunean aurrerapenak izan diren arren, emakumeen langabezia-tasa handiagoa da gizonena baino, eta horrek adierazten du oraindik ere oztopoak eta genero arrakalak daudela lan merkatuan, emakumeek lana lortzea eta karrera profesionalean aurrera egitea oztopatzen dutenak.

Hori are nabarmenagoa da pertsonen beste familia erantzukizun batzuei aurre egiten dieten adin-tarteetan, hala nola seme-alaben edo beste senitarte batzuen zaintza.

Testuinguru horretan, datuek erakusten dute langabeziaren kronifikazioa dagoela 35 urtetik gorako emakumeen kolektiboan.


Kronifikazio horrek 35 eta 45 urte bitarteko emakumeei eta 55 urtetik gorako emakumei eragiten die batez ere, denbora luzean generoen arteko aldea 14 ehuneko-puntutik gorakoa baita. Zehazki, 35-45 urteko emakumeen kasuan, genero-arrakala ehuneko 23,5 puntukoa da abuztuaren.

Donostiako hiritarren artean, nahiz eta, batzaz beste, emakumeek gizonek baino ikasketa maila altuagoa izan, goi-mailako ikasketak dituzten emakume langabeen ehunekoak (LH eta unibertsitatea) nabarmen gaintzen du hezkuntza-maila bera duten gizonena.

Gainera, adin-tarte guztietan (batez ere 45 urtetik gorako adin-tarteetan) gizonak baino emakume gehiago kontratatzen badira ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, datuek bide ematen digute pentsatzeko emakumeen enplegua lortzea zailtzen duten oztopo eta arrakala horiek ere eragina dutela kontratazio-motan.

Beraz, emakumeen sinatutako kontratuen partzialtasuna gizonena baino ehuneko 20 puntu handiagoa da.

Langabeen hezkuntza maila



Langabeen % 43,7ek derrigorrezko ikasketak ditu bakarrik. Hala eta guztiz ere, langabeen % 19,3k unibertsitate-ikasketak ditu (Gipuzkoan eta EAEn baino ehuneko 7 puntu gehiago, gutxi gorabehera).

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, Donostiako langabetuak kualifikazio handiagoa du (gehiago dira unibertsitate-ikasketak dituzten langabeak, eta gutxiago, soilik, derrigorrezko ikasketak dituztenak).

Proportzioan, gizon langabe gehiago daude oinarrizko ikasketak dituzten emakume langabeak baino. Hala ere unibertsitate-ikasketak dituzten emakume langabeen proportzioa nabarmen handiagoa da ikasketa-maila bera duten gizonena baino. Beraz, esan genezake **Donostiako langabeen artean, oro har, emakumeek gizonak baino kualifikazio handiagoa dutela.**


	Donostia	Gipuzkoa	EAE
45 urtetik gorakoak	%58,4	%54,0	%54,6
35 urtetik beherakoak	%24,3	%26,2	%25,2
Iraupen luzeko langabezia	%44,8	%45,4	%49,5
Atzeritarrak	%14,3	%19,5	%18,3
EB-ko atzeritarrak / Atzeritarrak	%17,1	%17,0	%15,5
Unibertsitateko ikasketak dituztenak	%19,3	%13,1	%12,5
DBHra arteko ikasketak dituztenak	%43,7	%52,1	%54,4

Gipuzkoarekin eta EAerekin alderatuta, honako hau nabarmendu behar da:

- **Proportzioan, Donostiak 45 urtetik gorako langabe gehiago ditu.**
- **Proportzioan, Donostian gazteen langabezia txikiagoa da.**
- **Proportzioan, Donostiak EAEk baino iraupen luzeko langabe gutxiago ditu, baina Gipuzkoak baino gehiago.**
- **Proportzioan, Donostiak EAEk eta Gipuzkoak baino atzeritar jatorriko langabe gutxiago ditu.**
- **Donostian, EBtik datozen atzeritar langabeen proportzioa, atzeritar jatorriko langabeen guztizkoari dagokionez (% 17,1), EAEn erregistratutakoa baino handiagoa da (% 15,5), baina Gipuzkoakoa baino txikiagoa (% 17,0).**




(20 eta 64 urte bitarteko biztanleriaren garrantzi demografiko bera biztanleria osoarekiko 3 lurraldeetan: % 58.)

Langabeek gehien eskatzen dituzten lanbideak



Langabeek gehien eskatzen dituzten okupazioen artean, enplegu-eskatzaileek Lanbideren bidez interesa agertu dutenak, zerbitzuen sektoreko okupazio kualifikatuak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak nabarmentzen dira.

Sinatutako kontratuak eta kontratatutako pertsonak



Irailean zehar **emakumezkoen kontratazioak gizonezkoena gainditu du**. Gainera, proportzioan, emakume langabeen kopurua gizon langabeena baino gehiago murriztu da.

Irailean, **emakumeek sinatutako kontratuen ia erdia lanaldi partzialeko kontratuak dira, eta gizonen sinatutako kontratuen % 32 baino ez dira mota horretako kontratuak**.

Azkenik, irailean, **kontratatutako pertsona guztien % 11 emakume atzerritarrak direla nabarmentzen da** (atzerritarrak Donostiako biztanleria osoaren % 10,2 dira).

Irailean zehar 9.233 kontratu sinatu dira, hau da, abuztu baino % 33,1 gehiago (2.298 kontratu gehiago, 2023ko irailean baino 61 kontratu gehiago).

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Hileko kontratuak guztira	3.929	%42,6	5.304	%57,4	9.233
Aldi baterakoak	2.989	%42,8	4.000	%57,2	6.989
Mugagabeak	940	%41,9	1.304	%58,1	2.244
Lanaldi partziala	1.248	%31,8	2.680	%68,2	3.928
Lanaldi osoa	2.681	%50,5	2.624	%49,5	5.305

Kontratu horiekin 6.867 pertsona kontratatu dira, hau da, abuztu baino % 30 gehiago (1.611 pertsona gehiago).

2023ko irailaren aldean, 123 kontratu gutxiago sinatu dira 2024ko irailean.


Batez beste, kontratatutako pertsona horietako bakoitzak 1,32 kontratu sinatu ditu irailean.

	Gizonak		Emakumeak		Guztira
Kontratatutako pertsonak guztira	2.861	%41,7	4.006	%58,3	6.867
Sinatutako kontratuen ratioa	1,4		1,3		1,3
24 urtetik beherakoak	841	%43,4	1.095	%56,6	1.936
25 eta 34 urte bitartekoak	825	%43,9	1.053	%56,1	1.878
35 eta 44 urte bitartekoak	512	%40,8	742	%59,2	1.254
45 eta 54 urte bitartekoak	463	%39,9	697	%60,1	1.160
54 urtetik gorakoak	220	%34,4	419	%65,6	639
Atzerritarrak	556	%43,2	731	%56,8	1.287

Nabarmendu dezakegu:

- Adin-tarte guztietan kontratatu dira emakume gehiago gizon baino. Batez ere 45 urtetik gorakoen adin-tartean.
- Sinatutako **kontratuen % 24,3 mugagabeak ziren** (% 20,3 abuztu).
- Sinatutako kontratuen **% 42,5 lanaldi murriztukoak dira** (% 41,4 abuztu). Kontratu horiek gehienbat emakumeek sinatzen dituzte (kontratu horien % 68).
- Kontratuen **% 56 35 urtetik beherakoek sinatzen dituzte**.
- Kontratuen **% 26 45 urtetik gorakoek sinatzen dituzte**. Horietatik **% 62 emakumeak dira**.
- Kontratatutako pertsonen **% 18,7 atzerritarrak ziren**. Gainera, kontratatutako atzeritar jatorriko pertsonen **% 57 emakumeak ziren**.

Kontratuak sektore nagusien arabera¹



OSTALARITZA

- Sektoreak hiriko kontratazioan duen pisua txikitu egin da eta hirian sinatu diren **kontratu guztien % 17,2** sinatu ditu (% 22,9 uztailen eta %18.8 abuztuan).
- Hiriko **kontratu mugagabe guztien % 26,1** sinatzen ditu (uztailen % 36.4 eta % 34.4 abuztuan).
- Hala eta guztiz ere, sektore horretan sinatu dira kontratu mugagabe gehien, 586 **kontratu mugagabe** (815 kontratu uztailen eta 484 abuztuan).
- Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 37 mugagabeak dira** (abuztuko kontratazio mugagabearen maila berdina).
- Kontratazioaren **partzialtasunak ehuneko 7 puntu egin du gora uztailarekin** alderatuta. **Ostalaritzan sinatutako kontratuen % 55 lanaldi partzialekoak dira** (% 41 uztailen eta %48 abuztuan).

MERKATARITZA

- Hiriko kontratuen % 10,2 sinatu ditu** (% 12.9 uztailen eta 13.4 abuztuan).
- Hiriko kontratu mugagabeen % 12,9** (abuztuan % 15,1) eta **lanaldi partzialeko kontratuen % 15,1** sinatu ditu (abuztuan % 21,1).
- Abuztuan zehar **merkataritzan sinatutako kontratuen % 31 mugagabeak dira** (% 23 abuztuan).
- Lanaldi partzialeko kontratazioak % 2 egin du behera aurreko hilaren aldean.** **Merkataritzan erregistratutako kontratuen % 63 lanaldi partzialekoak dira** (% 67 uztailen eta %65 abuztuan).

KONTRATU MUGAGABEAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	4 (%0,2)	%75,0	%25,0
Eraikuntza	67 (%3,0)	%89,6	%10,4
Industria	43 (%1,9)	%74,4	%25,6
ostalaritza	586 (%26,1)	%47,8	%52,2
Merkataritza	289 (%12,9)	%33,6	%66,4

SEIC - PERTSONAK

Hezkuntza	289 (%12,9)	%32,5	%67,5
Osasuna eta gizarte zerb.	133 (%5,9)	%27,1	%72,9

SEIC - ENPRESAK

Zerbitzu operatiboak	462 (%20,6)	%36,4	%63,6
----------------------	-------------	-------	-------

JARDUNALDI PARTZIALEKO KONTRATUAK SEKTOREKA:

	GUZTIRA	Gizonak	Emakumeak
Lehen sektorea	26 (%0,7)	%88,5	%11,5
Eraikuntza	21 (%0,5)	%61,9	%38,1
Industria	56 (%1,4)	%64,3	%35,7
ostalaritza	865 (%22,0)	%38,4	%61,6
Merkataritza	594 (%15,1)	%28,6	%71,4

SEIC - PERTSONAK

Hezkuntza	472 (%12,0)	%26,1	%73,9
Osasuna eta gizarte zerb.	633 (%16,1)	%17,2	%82,8

SEIC - ENPRESAK

Zerbitzu operatiboak	936 (%23,8)	%33,0	%67,0
----------------------	-------------	-------	-------

Hezkuntza-sektoreetako, SEICetako eta zerbitzu operatiboetako kontratazioak nabarmen igo dira abuztuarekin alderatuta, eta horrek zerikusia du udako denboraldiaren amaierarekin.

Bestalde, behin-behinekotasunak oso handia izaten jarraitzen duela hirian; Donostian sinatzen diren 10 kontratutik 2,4 baino ez dira mugagabeak (aurreko hilabeteetako maila berdina).

Behin-behinekotasuna jarduera-sektore hauetan nabarmentzen da batez ere: Lehen sektorea, Industria eta osasun – gizarte zerbitzuen sektorean (sektore horietan sinatutako kontratuen % 96, %84 eta % 90 aldi baterakoak dira, hurrenez hurren).

Lanaldiaren partzialtasuna bereziki garrantzitsua da ostalaritzan, merkataritzan, hezkuntzan eta osasun sektorean. Azken horretan, lanaldi partzialeko kontratuen % 83 emakumeei egiten zaizkie (oso sektore feminizatua da).


Emakumeek ez dute ia presentziarik lehen sektoreak eskaintutako kontratazioan (% 14), industrian (% 27) eta eraikuntzan (% 18). Hala ere, hezkuntzako kontratuen % 72 eta osasun-sektoreko kontratuen % 77 emakumeen kolektiboarentzat dira.

¹SEIC: SEIC terminoak "Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak" kontzeptuari egiten dio erreferentzia, balio erantsi handia erakusten duen zerbitzu-tipologia. SEICak, era berean, **pertsonen zuzendutako SEICetan** (hezkuntza eta osasuna) eta **enpresei zuzendutako SEICetan** banatzen dira (ingeniaritzako, ikerketako, aholkularitzako, sormeneko jardura intentsiboetako eta abarretako jarduerak).

SERVICIOS OPERATIVOS Sektore hauek biltzen ditu: garraioa eta biltegiatzea (463 kontr.), finantza- eta aseguru-jarduerak (25 kontr.), higiezin-jarduerak (14 kontr.), administrazio-jarduerak eta zerbitzu osagarriak (1.272 kontr.), administrazioa publikoa (53 kontr.), beste zerbitzu batzuk (126 kontr.) eta etxeetako jarduerak (153 kontr.).

DSBEaren hartzaileak

Abuztuan **3.482 pertsonak jaso zuten DSBEa hirian** (abuztuan baino 123 jasotzaile gutxiago).




Nabarmendu daiteke:

- DSBEa jaso zuten pertsonen **% 59,3 emakumeak dira**.
- **55 urtetik gorako pertsonak DSBE jasotzen dutenen % 47,3 dira**
- DSBEa jasotzen dutenen % 23,5k lanaren osagarri gisa jaso dute.
- Donostian DSBE jasotzen zutenen % 29,2k goi-mailako ikasketak zituen (Lanbide Heziketa edo unibertsitateak).
- Gipuzkoarekin eta EARekin alderatuta, nabarmentzekoa da Donostiako DSBEa jasotzen duen pertsonak adin eta kualifikazio handiagoa izateko joera duela.

	Donostia	EAE	Gipuzkoa
16 - 19 urte	%0,3	%0,7	%0,4
20 - 24 urte	%2,4	%2,5	%2,5
25 - 29 urte	%4,6	%5,3	%5,3
30 - 34 urte	%7,0	%7,8	%7,5
35 - 39 urte	%8,5	%9,8	%9,5
40 - 44 urte	%9,1	%11,1	%10,9
45 - 49 urte	%10,1	%11,6	%10,8
50 - 54 urte	%10,8	%11,3	%10,9
55 urtetik gora barrutitik kanpora	%47,3	%40,0	%42,2
Derrigorrezko ikasketak	%52,6	%61,3	%58,6
Batxilergoa	%9,4	%6,9	%7,2
Lanbide Heziketa	%22,1	%17,9	%20,1
Unibertsitatea	%7,1	%4,5	%4,7
Informaziorik gabe	%8,9	%9,4	%9,3
Lanaren osagarritasuna	%23,5	%21,6	%22,7
Oinarritzko DSBE modalitatea	%76,5	%78,4	%77,3
Gizonak	%42,5	%42,3	%42,5
Emakumeak	%59,3	%57,7	%57,5

DSBEaren hartzaileak auzoaren arabera



Auzoak	Hiritar kopurua	DSBEaren hartzaileak	Auzekide guztiekiko %
Aiete	14.066	142	%1,0
Altza	19.517	568	%2,9
Amara Berri	29.377	421	%1,4
Antiguo	13.754	134	%1,0
Añorga	2.448	29	%1,2
Ategorrieta-Ulía	3.874	67	%1,7
Centro	21.352	336	%1,6
Egia	14.208	326	%2,3
Gros	17.563	267	%1,5
Ibaeta	9.721	124	%1,3
Igeldo	1.040	6	%0,6
Intxaurrondo	15.010	504	%3,4
Loiola	6.073	175	%2,9
Martutene	2.592	82	%3,2
Miracruz-Bidebieta	8.565	282	%3,3
Miramón-Zorroaga	2.302	19	%0,8
Zubieta	-	-	-